

# Hamar, hamaika preso lagunak

JOXE AZURMENDI (IDAZLEA)

Jakin, denok badakigu, ez banda terroristakoak direla, eta ez banda terroristarekin kolaboratu dutela, ez banda terroristarekin zerikusirik batere sekula izan dutela. Eta denok badakigu, Madrilen ere badakitela hori. Orduan, gertatu den guztia da, estrategia batek azpian harrapatu dituela, geroz eta lotsagabeago dabilen «ETAren entornoa» desegiteko estrategiak. Beste ezer ez.

«ETAren entornoa» nahi duenak nahi duen bezala zermugatzten du.

Hasieran, gaizki informatuta ote dauden, hasten zara pentsatzen. «Ez da posible bestela!». Baina ez. Beharbada gaizki informatuta lehenengotan zebiltzan, ez dakit. Bitartean nahikoa informatu dira. Orain oso ongi, oso-oso ere ongi daude informatuta. Gure bulegoak miatuak dituzte aurretik, geure etxe pribatuetan sartu eta ibili dira «pallearen baimenik gabe arakatzeko, telefonoak aspaldian entzuten dituzte. Badakite dena, ez dagoena jakin nahi ez badute.

Ertortzen da gero Acebes ministroa, eta jendaurrean deklaratzeko du, dena euskal kulturaren onerako izan dela. Euskal kultura egiazkoaren onerako. Eta denok badakigu, berak ere badaikiela, badakigula guk ere, esaten duena ez duela sinesten. Baina hori berdin da, esan egiten du, estrategian hala dago idatzita gidoian, kontua papela egitea da.

Hitzak eta hitz egiteak balio dena aspaldi galdu dute. Ping, pong. Hitzak pilotak. Pilotak ez dio axola. Bota batera, bota bestera. Hiz-keta ping-pong bat besterik ez da. Hitzak ez dio axola. Tanta irabazteak bakarrik axola dio. Berdin da nola Zinismo infinito bat. Harrokeria infinito bat. Bost axola egia, gezurra. «Bi tiro eta kito», esaten du norbaitek desesperatuta.

Egia eta gezurra estrategia baten

kapitulua direnean, zer gelditzen da? Hitzak ezer balio ez badu, hitz egin nahi ere ez bada, zer egin? Burla egiteko bakarrik hitz egiten denean?

Hildako bakoitzaren erantzulea ETA da. Baina oraindik ETA egotearen erantzule, zinismo hori, harrokeria hori da. ETA oraindik ere egotearen erantzule Madrilgo Gobernu da, politika espainola da, komunikabide espainolen parte handi bat da, mila eta mila aldiz lehenago, atxilotu dituzten hamar lagunak eta EGUNKARIA baino. Errudunak denok gara. Baina batzuk kausa direktoa gertatzen ari dira, luzeagora derrotatuen beste Bergarako Besarkada bat

bortxa arazteko beren estrategiarekin, bortxakeriaren soluzioa bortxakeria gehiagoan bilatuz.

Estatu biolentzia ziniko horrek, berriro ikusi behar izan dugunak atxiloteten modu teatral lotsagarrian, laurogeita bi urteko Martin Ugaldere kontuen blokeoan, EUSKALDUNON EGUNKARIAREN egoitzen itxieran ebazpen judizialik erakutsi ere gabe, dokumentuen konfiskazio arbitrarioetan beste bulego batzuetatik EGUNKARIAREKIN zerikusirik gabekoak, zer bilatzen zuen horrek denak? Euskal gizarteke bakea eta lasaitasuna agian?

Eusko Jauriaritzak, hitz onak, auzia

ren segimendua egingen omen du. Horretarako geu gara nahikoa. Horixe egin behar guk ere, besterik ezin dugu. Ezin du besterik Eusko Jauriaritzak? Horrela bada, euskarak ez du Gobernuri. Madrilgoa ez da euskararen komunitatearen Gobernu. Etsaia da. Jauriaritza ere ez bada, euskararen komunitatea bere «egoera natural» babesgabean dago munduan.

Orduan galdera logikoa sortzen da, non eta nola behar duen babesa bilatu. Erantzunak zuzenagoak ala okerragoak izango dira. Baina galdera zen, batere egon behar ez zuena galdera gizarte normal batean.

MARTINTXO



# Icebergaren tontorra

TXILLARDEGI (IDAZLEA)

EGUNKARIAREN kontrako operazioak, bere basakeriagatik beragatik, Euskal Herriaren kontrako erasoren izaria ezkuta dezake. Baina txorakeria litzateke otsailaren 20ko gertakariak kontestutik at zertzeza. Atxilotuen zerranda arretaz begiratzea besterik ez dago.

Hamarretik bost EGUNKARIAREN gidaritzakoak dira: Martxelo Otamendi zuzendaria, hasteko, eta honekin batera EGUNKARIAREN erremalax eraman dituzten lau arduradunak: Iñaki Uribe, Fermin Lazkano, Luis Goia eta Inma Gomila.

Baina beste bosten ezaugarriek, ezin garbikiago jarri dute operazioaren helburua. Joan Mari Torrealdai, Jakin euskal kultur aldizkariaren zuzendaria; Pello Zubiria, Argia euskal astekariaren zuzendaria; Xabier Oleaga, euskal ikastolen mugimenduaren bultzatzailea; Txema Auzmendi, Herri irratiko euskal sailaren zuzendaria, apaiza eta jesuita, Xabier Alegria, daukan izari politikoaz gain, urte askotan euskalgintzan jardun duena.

Ez da unea EGUNKARIAK luzaz, oso luzaz, agintari 'abertzale' batzuegandik jasotako boikot iraunkorra gogorarazteko.

Baina egiari bere bidea.

Eta ez da euskal kulturaren kontrako atzaparkada osotik at gertatu. Egunero irakurtzen dugun prentsan Espainiako PP alderdiak Nafarroan aurrera daraman politika anti-euskalduna. Ikastola mugimenduaren aurkako kanpaina ere hor dugu, honek urte zail luzeetan barrena egindako lana, burokrazia autonomikoaren mesedetan, ezkutatu, are desburturatu ere.

Baina herrian gero eta gehiago dira euskarak hizkuntza bizi eta moderno gisa garaitzea nahi dutenak. Eta hone-

txek ateratzen ditu etsalak beren onetatik.

Ez dezagun aipa ere, frantses agintariek betidanik euskararen kontra erakutsi duten herra. Aski da Ipar Euskal Herrian euskarak gaur bizi duen egoera agonikoa gogoraraztea.

Egun hauetako eraso latza, hitz batez, Euskal Herriaren kontrako borondate ukatzailearen azkeneko katebegia besterik ez da. Baina euskaldunok eskarmentu handia dugu egoera hauetan; eta kinkaldi hau ere gauditu egingo dugu.

Eutsi goiari!